

Hogei talde nafarren abestiak eremu ez euskaldunean euskaraz bizi nahi duten familien alde

EUSKARAZ BIZI ETA IKASI HERRI



EUSKARAZ BIZI ETA IKASI Herri Ekimenak argitaratu duen CDak hogei abesti biltzen ditu. Garesko Tortotxiki fundazioaren laguntza

izan dute eta musika talde bakoitzak bere alea jarri du. Leihotikan, Jaleo, Los goma, Hipotekaos eta Maria Morentin-en abestiak entzun dai-

Euskaraz Bizi eta Ikasi Herri Ekimeneko kideak diskoa aurkeztu zuten egunean.

tezke, besteak beste. Ekarpena egin duten talde asko Nafarroako eremu ez euskaldunekoak dira. Taldeez gain hainbat norbanakok kolaboratu du diskoan, hala nola, Aitor Gorosabelek, Xabi Solanok eta Enrique Villareal “El Drogas”ek. CDan kantuak jasotzeaz harago, Euskararen Legeak Nafarroako erdialdean eta hegoaldean eragindako ondorioak jasaten dituzten protagonistek hitz egin dute: seme-alabek euskaraz ikasi ahal izateko Larragako familia batek egin beharreko aurrera-atzerak; Iturriagatik Lizarrara ikastera joaten diren sei haurren odisea; eta Tuterako ikastolako gazte batzuen gorabeherak. 5 eurotan jarri dute saltzen abesti bilduma.

Euskaraz Bizi eta Ikasi Herri Ekimena duela urtebete inguru sortu zuten eremu ez euskalduneko hainbat herritarrek. Irakaskuntza publikoan ez dago euskaraz ikasterik eta inguru horretako gurasoek haurrak ikastoletara edo eremu mistoko eskola publikoetara eraman beste aukerarik ez dute. Euskaraz ikasi nahiagatik pairatu beharreko ikasleen eguneroko exodoa salatu nahi du ekimenak. Sortu zenetik, Tafallan manifestazioa eta Aste Santuan Bertsokleta antolatu dituzte.

EKONOMIAREN TALAIAN

Justizia injustua bankuekin

EGUNKARIETAKO lehen orrialdeetan irakurri ahal izan dugunez AEBetako Justizia Departamenduak 12.000 milioi euroko (16.650 milioi dolar) isuna jarri dio Bank of Americari, herrialde hartako aktibo gehien dituen bigarren bankuari. Subprime hipoteka famatuen krisia leherrarazi zuten bonoen kudeaketan iruzur egin zuen entitate horrek. Herrialde horretan finantza erakunde bati inoiz ezarri zaion isun handiena da, inork ez baitzuen hainbeste egin Mendebaldeko ekonomiaren krisirik handiena –1929ko hondamendiaz geroztik, behinik behin– ekarri zuen engainua puzteko. “Erabaki historiko hau egokia da, ikusirik delituaren tamaina eta eragindako kaltea”, azaldu zuen AEBetako fiskal nagusiak.

Eta hala ere, delitu hori onartuta ere, AEBetako justiziak ez du banku horretako exekutiborik zigortu. Beraz, fiskal nagusiak esan arren isuna egokia izan dela, ez da hala. Zer justizia da hori? Iruzurra bat-batean sortu zen

bere kabuz? Pertsonak, zuzendariak, exekutiboak eta kontseilariak sortu zuten, edo behintzat beste alde batera begiratu zuten hartaz jabetzean. Iruzurrak arduradun batzuk ditu, izen eta abizenekin, administrazio kontseilutik hasita. Zein dira Mendebaldeko krisi handienetakoa sortu zuen gezur milioi-dun horren arduradunak? Zergatik AEBetako justiziak ez du prozesua muturreraino eramaten, arduradunak zuzenean zigortuz? Hori ez da justizia, injustizia itzela baizik.

Egia da Espainiako Estatuan justiziak ez dizkiela halako isunak jarri lehentasunezko partaidetzak eta beste produktu opakoak saldu zituztenei. Nahiko genuke AEBek egin bezala egitea. Baina ez hori bakarrik. Arduradunak judizialki zigortu eta kartzelara eraman behar dira. Horrela baino ez litzateke herritar orok ulertzen duen gisako justizia izango.

Juan Mari Arregi



Azpea
NAVARRA
Denominación de Origen

ARDO EKOLOGIKOAK

Lumbier (Nafarroa)
www.bodegasazpea.com